



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

# UDAL HAUR ESKOLEN ERABILERA ARAUDIA 2026-2027 IKASTURTEA

2024AN, 2025EAN ETA 2026AN  
JAIOTAKO HAURENTZAT



Vitoria-Gasteiz  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora





## AURKIBIDEA

1. Udal Haur Eskolak.	2
2. Hezkuntza mailak eta ikasgelak.	3
3. Eskola egutegia.	4
4. Ordutegiak.	5
5. Eskolatzearen hasiera Udal Haur Eskoletan.	6
6. Jantoki zerbitzua eta siesta.	7
6.1. Jantokiaren noizbehinkako erabilera.	9
7. Ordutegi eta zerbitzuen aldaketak.	9
8. Bajen kudeaketa eta plaza erreserbatzea ikasturtean zehar.	10
8.1. Baja ematea, familiek eskatuta.	10
8.2. Plaza erreserbatzea.	10
8.3. Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz baja ematea.	11
9. Haurrak eskolatik jasotzea.	13
10. Osasun arloko araudia.	14
10.1. Osasuna eta eskolatzea.	14
10.2. Txertoak.	15
10.3. Gaixotasunak.	15
10.4. Medikazioa.	17
11. Gerta daitezkeen haurren babesgabetasun egoeren detekzio goiztiarra eta jarraipena.	17
12. Gerta daitezkeen hezkuntza laguntzako berariazko premien detekzio goiztiarra eta jarraipena.	18
13. Irudi eskubideen babesak.	18





## 1. Udal Haur Eskolak.

Vitoria-Gasteizko Udalak lehen zikloko haur hezkuntzako bost eskolaz osatutako sarea du, Udal Hezkuntza Zerbitzuak zuzenean kudeatzen ditu eskola horiek.

Udal Haur Eskolen Sarea hauek eratzen dute:

- “Haurtzaro” Udal Haur Eskola (Santa Maria Kantoia, z/g – Alde Zaharra).
- “Lourdes Lejarreta” Udal Haur Eskola (Blas de Otero kalea, 12 - Lakua).
- “Sansomendi” Udal Haur Eskola (Valentín de Foronda bidea, 4 - Sansomendi).
- “Zabalgana” Udal Haur Eskola (Ilustrazioaren hiribidea, 46 - Zabalgana).
- “Zaramaga” Udal Haur Eskola (Nafarroako Errege-Erreginen kalea, 16 B - Zaramaga).

Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko zero eta hiru urte arteko umeen haur eskolak arautzen dituenak, haur eskolen hezkuntza eta asistentzia helburuak ezartzen ditu. Horien artean, azpimarratzekoak dira hauek:

- Familiekin lankidetzan arituta, lehen haurtzaroaren garapen integrala sustatzea haurren prestakuntzaren eta sozializazioaren bidez, euren eskubideekiko errespetuaren, ongizate psikofisikoaren eta ahalmen guztien, garapenaren ikuspegitik (afektiboak, sentsorial-motorrak, kognitiboak, harremanezkoak eta sozialak).
- Desberdintasunak prebenitzeko eta konpentsatzeko hezkuntza bat sustatzea, eta, bereziki, ekitate aldetik, gizarte mailan edo maila pertsonalean egoera ahulenean diren ikasleei arreta ematea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan elebitasuna bermatzeko baldintza egokiak bultzatzea hezkuntza ekintza hasten denetik.
- Familiei asistentzia zerbitzu bat eskaintzea ikasleak zaindu eta arreta emanaz.

Udal Haur Eskoletan heziketa eta funtzio ludikoa haurren oinarriko eskubide gisa hartzen dituen hezkuntza proiektu bat bultzatzen dugu. Haien behar fisikoei, afektiboei eta emozionalei berariaz erantzuteko beharretik abiatzen gara; eta, familiekin lankidetzan estuan, haien nortasuna modu harmonikoan garatzen lagundu nahi dugu, ikuspegi afektibo, intelektual, sozial zein kulturaletik.





Lehen haurtzaroari arreta eskaintzen egindako ibilbide luze eta sakonaren ildotik, eta horri datxekion hezkuntzarako eskubidearekin bat eginez, Udal Haur Eskolen sareak etengabeko eguneratze pedagogikoa gauzatzen du, egungo gizartearen behar berrietara egokitzearekin batera. Horrenbestez, "Udal Haur Eskolen Sarearen Hezkuntza Proiektua" onartu zen 2019ko abenduaren 11n, Sarearen datozen urteetarako printzipio pedagogikoak eta hezkuntza praktika ezartzen dituena. Hezkuntza Proiektuarekin bat etorriz, Udal Haur Eskolen Sarearen Hezkidetzako Plan Gidaria (2023-2030) ezarri du.

Hizkuntzen trataerari dagokionez, Udal Haur Eskoletan baldintza hoberenak bultzatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren bi hizkuntza ofizialak erabiliz elebitasuna bermatzeko hezkuntza ekintzaren hasieratik, giro egokia sortuz euskara komunikaziorako eta ikasteko hizkuntza izan dadin.

Udal Haur Eskolen Sarean jangelako unea beste hezkuntza une bat da, haurren garapenerako berebiziko garrantzia duena, eta, gainera, etorkizunean elikadura osasungarriaren oinarriak ezarriko dituena. Jantoki zerbitzuan eskaintzen diren menuak eskoletan bertan egiten dituzte udaleko sukaldariek, sasoiko elikagaietatik abiatuta, eta, gehienetan, ziurtagiri ekologikoarekin.

Vitoria-Gasteizko Udalak bultzada eta balio handia eman zion Udal Haur Eskolen Sareari 2023-2024 ikasturtetik aurrera, doako asistentzia ezarri baitzuen, bai 8:00etatik 13:00etara, bai 8:00etatik 16:00etara. Neurri horretatik kanpo geratzen da jantoki zerbitzua, 8:00etatik 16:00etarako ordutegiaren barruan dagoena.

## 2. Hezkuntza mailak eta ikasgelak.

Udal Haur Eskoletan zero urtetik urtebetera, urtebetetik bi urtera eta bi urtetik hiru urtera bitarteko haurrak matrikulatu ahalko dira. Horretarako, 2026-2027 ikasturterako eskoletan hasten direnak 2024, 2025 eta 2026 urteetan jaiotakoak izan beharko dira. Eskolan hasi ahal izateko, 17 aste beteta izan beharko dituzte, gutxienez, eta aldi berbera izango da, oro har, adopzio kasuetan ere.





Udal Haur Eskolek ikasgela kopuru hau eskainiko dute 2026-2027 ikasturtean:

Eskola	0 -1 urteko ikasgelak	1-2 urteko ikasgelak	2 -3 urteko ikasgelak
	Ratioa: 8 haur	Ratioa: 13 haur	Ratioa: 18 haur
Hurtzaro	1	2	1
Lourdes Lejarreta	1	3	2
Sansomendi	2	2	2
Zabalgana	2	2	2
Zaramaga	1	3	2
<b>Ikasgelak, guztira</b>	<b>7</b>	<b>12</b>	<b>9</b>

Hezkuntza mailen araberako ikasgelen hasierako plangintza hori aldatu ahal izango da matrikulazio prozesutik ondorioztatzen den benetako eskariaren arabera.

### 3. Eskola egutegia.

Udal Haur Eskolek 2026ko irailetik 2027ko uztaile arte eskainiko dute zerbitzua, biak barne. 2026-2027 ikasturterako Udal Haur Eskolen Sareko behin betiko eskola egutegia kurtso hasieran emango da.

Udako eskolarik gabeko aldiak, 2027ko ekainaren 21etik uztailearen 15era, eskolek antolaketa eta funtzionamendu desberdina izango dute gainerako ikasturtekoaren aldean, hezitzaileen lan-egutegiaren, plangintza eta ebaluazio lanen eta hezitzaileen prestakuntza jardueren arabera. Aldi horretan malgutasun handiagoa egongo da sartzeko eta irteteko ordutegietan, eta egoera hauetan dauden familiek soilik erabili ahal izango dituzte Udal Haur Eskolak:

- Bi gurasoko familien kasuan, bi gurasoak edo legezko tutoreak lan merkatuan lanean ari direnean.
- Guraso bakarreko familien kasuan, ama, aita edo tutorea lan merkatuan lanean ari denean.

Familiek lan egoera egiaztatu beharko dute.





Egoera horiez gain, behar bereziko inguruabarrak ematen direnean, Hezkuntza Zerbitzuak baloratu ahal izango du aurreko atalean aurreikusten ez diren kasuetan beste familia batzuk ere Udal Haur Eskolez baliatzea aldi horretan.

## 4. Ordutegiak.

Hezkuntza maila guztietan (zero urteko, urtebeteko eta bi urteko geletan), eskolak irekitzeko ordutegia 08:00etatik 16:00etara izango da, eta bi ordutegi eskainiko dira:

- Goizeko ordutegia: 08:00etatik 13:00etara.
- Goizeko eta arratsaldeko ordutegia (jantoki zerbitzua eta siesta barne): 08:00etatik 16:00etara.

Sarrera eta irteera ordutegi malgu hauek ezarriko dira:

- Sarrera: 08:00etatik 09:30era.
- Irteera goizeko ordutegian: 12:30etik 13:00etara.
- Irteera goizeko eta arratsaldeko ordutegian: 15:15etik 16:00etara.

08:00etatik 16:00etara, eskola bakoitzak, bere antolaketa aukeren arabera, irteera ordutegi bat ezarri ahal izango du bazkalostean, 13:30ean, gutxi gorabehera. Ordu horretan siestarik gabe irtetea erabakitzen bada, horrek ez du eraginik izango 08:00etatik 16:00etara bitarteko ordutegiari dagokion tarifaren ordainketan.

Udan, eskolaz kanpoko aldian, eskola bakoitzak sartzeko eta irteteko ordutegi malguagoak ezarri ahal izango ditu.

Bai sarreran, bai irteeran, familiek uneoro errespetatu beharko dute eskolaren antolaketa, eta, beraz, ordutegi horiek puntualtasunez errespetatuko dituzte, eta ez dute beren espazioetan behar baino denbora gehiago egongo, ez beren alaba edo semea eraman edo hartzeko.

Ikasleak ezarritako ordutegietatik kanpo sartzea edo irtetea soilik onartuko da kontsulta medikuetara joanez gero, edo egoera justifikatuengatik, eskolako zuzendaritzari aldeztu aurretik jakinarazita.





Deskribatutako ordutegiak ez dira irailean aplikatuko, hilabete horretan harrera egiteko eta eskolarekin ohitzeko prozesua egiten baita. Horretarako, ordutegi indibidualizatuak ezarriko dira haur bakoitzarentzat. Ordutegi horiek arian-arian luzatuko dira familiek eskatutako ordutegira iritsi arte, eta, behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik, iraila amaitutakoan hasiko dira.

Ikasturtean zehar eskolatuko direnek ere ordutegi egokia izango dute harrera egiteko eta eskolara ohitzeko.

## 5. Eskolatzearen hasiera Udal Haur Eskoletan.

Aurkikuntzak egiteko, esploratzeko edota gauza eta espazio berriekin esperimintatzeko aukera ematen die hurrei haur eskolak; horrela, esperientziak zabalduko dituzte, eta beren garapen pertsonala aberastuko da. Haurren beharren arabera ulertzen den esparru batean egingo da hori, eta familia eremutik kanpo dauden beste haur eta heldu batzuekiko harremanetan.

Baina, eskolatzek dakartzan onurak zerrendatu baditugu ere, horrek ez du esan nahi erraza denik haientzat. Eskola bizitzaren hasiera une sentikorra eta berezia izaten da haurrentzat, lehenengo aldiz bereziko da bere erreferentziako pertsonengandik.

Denbora behar dute eskola ezagutzeko, beren tokia bilatzeko, inguruan dituzten pertsonekin batera aritzeko, gauza interesgarriak aurkitzeko, gustura egoteko eta gozatzeko.

Familia bizitzatik eskola bizitzarako trantsizioa errazagoa izan dadin, haurrak, eskolan sartzean, harrera eta eskola bizitzara ohitzeko aldi bat izango du.

Harrera egiteko eta eskola bizitzara ohitzeko aldi horretan, haur bakoitza familiarengandik bereizteko prozesu bat egiten hasten da, sentimenduen ikuspegitik, eta beste pertsona batzuekin harremanetan hasten, egoera berria onartzen duen arte. Aldi berean, hezitzaileak haurra ezagutzen joango dira pixkana, eta lagundu egingo diote prozesu horretan, nortasuna errespetatuz eta familiek emandako informazioa hartuta abiaburutzat.





Eskolatzeari ekin aurretik, hezitzaileak familiarekin harremanetan jarriko dira, alaba edo semea eskolan hasteko prozesua azaltzeko.

Harrera egiteko eta eskola bizitzara ohitzeko prozesua oso pertsonala da, eta, horregatik, familiei banatzen zaien egutegia alda eta molda daiteke, haur bakoitzaren beharren arabera.

Orokorrean, irailean egingo da, eskolak ezarriko duen egutegia eta antolamendua. Ikasturtean zehar eskolatuko diren haurrekin ere egingo da harrera eta eskola bizitzara ohitzeko aldia, familia bakoitzaren egoeraren arabera antolatuta.

Garai horretan, funtsezko zeregina betetzen dute familiek, hezitzaileengan beren konfiantza jarritz, seme-alaben ondoan egonez eta haiei segurtasuna emanez. Horregatik, garrantzi handia du familiek, ahal duten neurrian, beren lan bizitza eta beste konpromiso batzuk egokiro antolatzea eskolatzeari ekin aurretik, prozesu hori garatzean eskolan seme-alaben ondoan egoteko beharrezkoa den denbora izan dezaten.

Haurra aurrez eskolan eskolatuta egon bada ere, ez da pentsatu behar horregatik ez duenik harrera egiteko edo eskolara ohitzeko eperik behar. Oporrek, familian bizi izan ditzaketen esperientzia berriek, heldutasunak, taldean izandako aldaketek, hezitzaileen artean izan daitezkeen aldaketek nahiz beste arrazoi batzuek eragina izan dezakete haurra berriro eskolatzeko orduan. Horrelakoetan, haurra horiek eskolara ohitzeko epea eskolara lehen aldiz doazen haurrek izango dutenaren desberdina izango da. Pixkanakako prozesu bat izango da, baina desberdinak izango dira egonaldiak.

## 6. Jantoki zerbitzua eta siesta.

Eskola guztiek eskaintzen dute jantoki eta siesta zerbitzua. Jantoki zerbitzua Udal Haur Eskolak irekitzen diren egun guztietan eskainiko da 2026ko irailaren 10etik 2027ko uztailaren 14ra arte, biak barne, 2027ko martxoaren 24an izan ezik (egun hori garbiketa orokorra egiteko erabiliko baita).

Jantoki plazak mugatuak dira eta ondorioz, nahiz eta baldintzak bete, plazarik gabe gelditzea gerta daiteke. Hori dela eta, plazaren esleipena lan egoerari lotuta dago eta egoera hori justifikatzea beharrezkoa da.





Oro har, 8:00-16:00 ordutegia, eta ondorioz jantoki zerbitzua eskatu ahal izango dute, plaza hutsak egotekotan, honako egoera hauetako batean aurkitzen diren gurasoek edo legezko tutoreek:

- Bi gurasoko familien kasuan, bi gurasoak edo legezko tutoreak lan merkatuan lanean ari direnean.
- Guraso bakarreko familien kasuan, ama, aita edo tutorea lan merkatuan lanean ari denean.

Familiak lan egoera egiaztatu beharko dute.

08:00etatik 16:00etara bitarteko ordutegirako plazen esleipena, jantoki zerbitzuarekin eta siesta barne, aurreko baldintzak betetzen dituzten eskabideak (bi gurasoak edo legezko tutoreak – edo legezko tutorea, guraso bakarreko familien kasuan – lan merkatuan lanean ari direnak) baino plaza gehiago baldin badaude, haurra eskolatzen hastean lortutako baremo puntuazioan emandako puntuazioaren arabera esleituko da.

8:00etatik 16:00etara ordutegian, 0-1 urteko geletako hurrek (6 hilabetetik aurrera), 1-2 urteko geletako hurrek, eta 2-3 urteko geletako hurrek eskolako jantoki zerbitzua erabiliko dute derrigorrez.

Ordutegi horretan matrikulatuta dauden sei hilabete baino gutxiagoko haurren kasuan, haien elikadura edoskitzea baino ez bada, familiak eraman beharko du esnea eskolara (amarena edo artifiziala). Haien elikadura edoskitzea bakarrik ez bada, jantoki zerbitzua erabili ahal izango dute, betiere familiak hala eskatzen badu.

Elikadura osagarriaren hasiera familiarekin elkarlanean egingo da, eta edoskitzea mantendu ahal izango da (amarena edo artifiziala), eskolan eskaintzen den dietaren osagarri gisa, elikadura osagarriarako sarrera amaitu arte.

Eskaintzen den menua eskoletan haurren adin eta beharretara egokituta dago eta bi bertsio ditu: beroaldiko hilabeteetarako menua (iraila, urria, ekaina eta uztaila gutxi gorabehera) eta hotzaldiko hilabeteetarako menua (ikasturteko gainerako hilabeteak), sasoiko eta hurbileko osagaiak eskaini ahal izateko.

Gainera, menu horrek intolerantzien edo alergia medikoen ondoriozko beharrei erantzuteko aldaketak egitea ahalbidetzen du, beti ere Udal Haur Eskoletako sukaldeetan dauden errekurtsioekin erantzuna





eman ahal bazaie. Aldaketa horiek egin ahal izateko, familiak Osakidetzak egindako medikuaren txostena aurkeztu beharko du, egoera zein den azaltzen duena

Beste menu aukera batzuk ere egokitu ahal izango da behar dituzten familiei erantzuteko, baldin eta egin beharreko aldaketak dauden baliabideekin egin badaitezke. Horretarako, familiek idatziz eskatuko dute aukera hori, eta ikasturtean zehar ezin izango da aldatu. Horren adibide bat dieta begetarianoa izan daiteke. Garrantzitsua da dieta jakin bat aukeratzea eta elikagaiak aukeratzea ez nahastea. Azken alderdi hori, elikagaiak aukeratzea, hain zuzen ere, ezinezkoa izango da Udal Haur Eskoletan.

Familiek, 08:00-13:00 ordutegian plaza badute, edo 08:00-16:00 ordutegian plaza badute, ezin izango dute jakirik, gozokirik, galletarik edo antzeko elikagairik sartu eskolan, litxarreriarik ere ez. Salbuespenezko kasuetan, familiek eskaria idatziz egingo dute eskolan, eta zuzendariak onartu egin beharko du. Aldi berean, salbuespenezko egoera gisa baloratuko da hezkuntza taldeak egin dezakeen beste edozein proposamen. Familiaren batek hemen adierazitakoa kontuan hartzen ez badu, eskolako zuzendariak edota hezitzaileek kendu egingo dizkiete hautemandako jakiak eta gozoki nahiz litxarreriak, eta eskolatutako hurrek horrelakoak jatea saihestuko dute. Familiek, behin eta berriz, elikagaiak, gozokiak eta abar sartuko balituzte eskolan, jokabide horrek ofizioz baja eragin lezake Hezkuntza Zerbitzuaren aldetik.

## 6.1. Jantokiaren noizbehinkako erabilera.

**Premia bereziak sortzen diren egoeretan**, Hezkuntza Zerbitzuak baloratu ahal izango du aurreko atalean jaso ez diren familiak 8:00etatik 16:00etara bitarteko ordutegian sartzea, eta, beraz, baita jantoki zerbitzuan ere, eskatutako egunean lekuren bat libre badago. Horretarako, eskolan egin behar dute eskaera. Aukera hori posible bada, tarifari %10 gehitu ondoren hura hainbanatzetik ateratzen dena ordaindu beharko dute.

## 7. Ordutegi eta zerbitzuen aldaketak.

Familiek idatziz eskatu beharko dute ordutegia edo zerbitzua aldatzeko, Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio kaleko 10. zenbakian dagoen Herritarrei Laguntzeko Bulegoan edo Udalaren egoitza elektronikoaren bidez. Horrez gain, eskolako zuzendaritzari ere horren berri





emango diote. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan ere egin dezakete eskaera.

Ikasturtean zehar, Hezkuntza Zerbitzuak bertaratzeko eta zerbitzuak erabiltzeko ordutegiak aldatzeko baimena eman ahal izango du, betiere hori posible bada eta ez badu eskolaren antolamendua aldatzen.

## 8. Bajen kudeaketa eta plaza erreserbatzea ikasturtean zehar.

Eskoletako baja familiek eskatuta edo Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz eman ahal izango du.

### 8.1. Baja ematea, familiek eskatuta.

Familiek, beren borondatez, baja eman ahal izango diete seme-alabei ikasturtean zehar. Horretarako, idatziz eskatuko dute Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio kaleko 10. zenbakian dagoen Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, Udalaren egoitza elektronikoaren bidez edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan. Idatziz eskatzeaz gain, haurra eskolatuta dagoen eskolako zuzendaritzari jakinaraziko diote. Eskolara joateko azken eguna baino gutxienez hamar egun baliodun lehenago aurkeztu beharko da eskabidea. Jantoki zerbitzuaren kuotari dagokionez, eskaera egiten den hilabetearen hurrengotik izango dute eragina fakturazioan baja horiek.

Jantoki zerbitzua eman zaien familiek, hala nahi izanez gero, baja eskatu ahal izango dute zerbitzu horretan, eta 08:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegia izango dute, doan. Eskaera aurreko prozedura jarraituz egingo da eta haurra eskolatuta dagoen eskolako Zuzendaritzari jakinaraziko zaio. Jantokira joateko azken eguna baino gutxienez hamar egun baliodun lehenago aurkeztu beharko da eskabidea. Eskaera egiten den hilabetearen hurrengotik izango dute eragina fakturazioan baja horiek.

### 8.2. Plaza erreserbatzea.

Hilabete bateko edo biko absentzietarako, behar bezala justifikatuta eta Hezkuntza Zerbitzuari idatziz jakinarazita, familiak plaza erreserbatzea eskatu ahal izango du, bai goizez, bai goizez eta





arratsalde. Aldi horretan, plaza ez da hutsik hartuko. Horretarako, familiek idatziz eskatu beharko dute aurreko paragrafoan adierazitako lekuetan, hamar egun balioduneko epean, ez bertaratzea gertatzen hasten denetik zenbatzen hasita. Gainera, eskolako Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio.

Erreserba onartu ondoren, goizeko edo goizeko eta arratsaldeko ordutegian, erreserba amaitu eta 10 egun balioduneko epean haurra eskolara itzultzen ez bada, eta familiak egoera hori jakinarazi edo justifikatzen ez badu, Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz eman ahal izango du behin betiko baja, inguruabarren arabera (8.3 atala ikusi).

Arrazoi medikoengatik edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik, 08:00etatik 16:00etara eskolatutako haurren familiek hilabete bateko edo biko erreserba eskatu ahal izango dute jantoki zerbitzua dagoen 13:00etatik 16:00etara. Ordu tarte hori erreserbatzen denean, neurri horrek jantoki zerbitzuaren hileko kuota %50 murriztea ekarriko du, hilabete batez edo bi hilabetez, kasuaren arabera. Aplikatu beharreko jantoki zerbitzuaren kuota ez da proportzionala izango absentzia egun kopuruaren arabera, baizik eta hilekoa izango da.

Eskaera, behar bezala justifikatuta, idatziz egingo da, jantokian hutsegitea gertatzen hasten denetik hamar egun balioduneko epean. Familiak aurkeztuko du eskaera Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio kaleko 10. zenbakian dagoen Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, Udalaren egoitza elektronikoen bidez edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan, eta dagokion eskolako Zuzendaritzari jakinaraziko dio.

Eskatutako epea igaro ondoren, 8:00etatik 16:00etara bitarteko ordutegira itzultzen ez bada, Hezkuntza Zerbitzuak, ofizioz, behin betiko baja eman ahal izango du aipatutako ordutegian. Hala ere, 8:00etatik 13:00etara arte mantendu ahal izango da.

### **8.3. Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz baja ematea.**

Jantoki zerbitzua bi hilabetez ordainketa egiten ez bada, haurra automatikoki baja emango da jantoki zerbitzuan, beraz, 8:00etatik 16:00etara, eta 8:00etatik 13:00etara eskolatuta egon ahal izango da.





Horretaz gain, Hezkuntza Zerbitzuak baja eman ahal izango du, ofizioz, eskolan edo jantoki zerbitzuan, honako kasu hauetan:

- Baldin eta bost egun balioduneko epean, ikasturtea hasten den lehen egunetik zenbatzen hasita, eskolara sartzen ez bada, familiak inguruabar hori jakinarazi edo justifikatu gabe. Ikasturtean zehar eskolatzen bada, eskolatzea aurreikusten den hilabeteko lehen eskola egunetik aurrera izango ditu ondorioak epe horrek.
- Eskolara sartu diren haurren kasuan, baina hamar egun baliodun jarraian huts egiten badute, familiak horren berri eman edo justifikatu gabe. Hala ere, 8:00etatik 16:00etara eskolatutako haurren kasuan, hutsegitea 13:00etatik 16:00etara bitartean bakarrik gertatzen bada, ofiziozko baja goizez eta arratsaldez izango da, eta 8:00etatik 13:00etara eskolatuta egon ahal izango dira.
- Familiak eskolan edo jantoki zerbitzuan plaza erreserbatzea eskatu badu, eta eskatutako epea amaitu eta hamar egun balioduneko epean haurra eskolara edo jantoki zerbitzura itzuli ez bada eta familiak egoera horren berri eman edo justifikatu ez badu. Jantoki zerbitzua dagoen 13:00etatik 16:00etara bitarte lanera itzultzen ez bada, 8:00etatik 13:00etara eskolatuta egon ahal izango da.
- Familiak edo legezko tutoreek eskolan haurra jasotzeko baimena duen pertsona edo pertsonak egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkezten ez badute.
- Familiak eskolan duen portaera desagokia bada, Udal Haur Eskolen erabilera araudiari edo eskolaren antolamendu eta funtzionamendu orokorrari dagokienez.

Eskolan edo jantoki zerbitzuan baja ofizioz ematen denean, Hezkuntza Zerbitzuak baja horren berri emango dio familiari. Jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hiru egun igaro ondoren, eta familiak jakinarazpenik egin ez badu, plaza hutsa beteko da. Egoera hori familiari jakinarazi ezin bazaio, plaza hutsa beteko da.

Aipatutako arrazoiren bat dela medio, eskolan zein jantoki zerbitzuan ofizioz baja ematen zaien familiek ezin izango dute berriro eskola plazarik edo, hala badagokio, jantoki plazarik eskatu ikasturte





osoan.

## 9. Haurrak eskolatik jasotzea.

Haurra eskolatik irtetea jaso ahal izateko, haren ama, aita edo legezko tutorea ez diren pertsonak, familiek "Haurra jaso dezaketen pertsonen buruzko informazioa" dokumentua bete eta entregatu beharko dute. Dokumentu hori eskolan emango da banakako elkarrizketaren egunean, eskolatzearen hasieran. Bertan zehaztuko dira haurra eskolan hartzeko baimena duten adinez nagusiak, haien izen-abizenak eta NANaren, AIZaren edo pasaportearen zenbakia adierazita.

Bi gurasoko familien kasuan, dokumentu hori bi gurasoek edo legezko tutoreek sinatuko dute. Guraso bakarreko familien kasuan, gurasoak edo legezko tutoreak sinatuko du.

- **Guraso bakarreko familiatzat edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiatzat** hartzen dira Guraso bakarreko familien araubidea ezartzen duen abenduaren 2ko 232/2025 Dekretuaren 3. artikulua 1. eta 2. puntuetan zehaztutakoak.

Hori horrela, guraso bakarreko familia edo gurasobakartasun egoeran dagoen familia ziurtatzeko "Guraso bakarreko familiararen edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiararen ziurtagiria"ren kopia aurkeztu beharko da edota, hau eduki ezean, hau lortzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa; alegia, "Guraso bakarreko edo guraso bakarreko egoeran dagoen familia izaera aitortzeko eskabidea" orrian zehaztutakoak.

Ezkontzak desagiten edo ezkontideak banantzen edo dibortziazten badira, edo izatezko bikoteen bizikidetzat eteten bada, eta haurraren zaintza erregimenari eta jagoletza erregimenari buruzko ebazpen judiziala badago, familiek araubide horren berri emango diote eskolari, eta "Haurra jaso dezaketen pertsonen buruzko informazioa" dokumentua bete edo aldatuko dute, neurri horiekin bat etorriz.

Adingabeei ere eman ahal izango zaie baimena, betiere 16 urte baino gehiago badituzte. Kasu horretan, "Adingabeek (16 urtetik gorakoak) haurrak jasotzeko baimena" orria ere bete beharko da, izen-abizenak, NAN zenbakia, AIZ edo pasaporte adieraziz.





Baimen agiria aurkezten ez bada, legezko gurasoek edo tutoreek baino ezingo dute jaso haurra. Gurasoak edo legezko tutoreek haurra jasotzen ez badute eta familiak dokumentua beteta aurkezten ez badu, Hezkuntza Zerbitzuak baja eman ahal izango dio, ofizioz, dagokion haurraren matrikulari.

Ezingo da eskolatik atera haurrik, eskatzen duen pertsonak ez badauka familiak aurretik emandako baimenik. Hala ere , "Haurra jaso dezaketen pertsonen buruzko informazioa" dokumentua ikasturtean zehar aldatu ahal izango da, behar adina aldiz, baldin eta atal honen hasieran ezarritako baldintzak betetzen badira.

Unean-unean, haurrak agiri horretan baimenduta ez dauden pertsonen jaso ahal izango dituzte, baldin eta familiak egoera hori idatziz baimentzen badu eta horretarako baimena duen pertsonaren edo pertsonen izen-abizenak eta NANaren, AIZren edo pasaportearen zenbakia adierazten baditu.

Hainbat arrazoiengatik tratamendu berezia behar duten kasuistika guztiak banan-banan aztertu eta ebatziko ditu Hezkuntza Zerbitzuak.

Hezitzaileek haurra jasotzera datorren pertsonaren identifikazioa eskatu ahal izango dute, NAN, AIZ edo pasaportearen bidez.

## 10. Osasun arloko araudia.

### 10.1.- Osasuna eta eskolatzea.

Familiak eskola bizitzaren hasieran haurraren osasun txartelaren fotokopia bat eramango dute eskolara.

Alergia edo intolerantziaren bat izanez gero, medikamenturen bati, elikagaien bati edo beste substantzia batzuei izan, eskolari jakinaraziko zaio idatziz eskola bizitzaren hasieran, edo egoeraren berri izan bezain pronto. Medikuen txostena atxikitu beharko da.

Haur eskoletan osasunarekin lotutako zenbait egoerari erantzuteko zailtasunak izan daitezkeenez – apneagatiko monitorizazioa, adibidez, edo zunda bidezko elikadura –, egoera bakoitza banan-banan





balioetsiko du Hezkuntza Zerbitzuak, kasu bakoitzari dagokion osasun arazoari erantzun diezaioketen zehazteko eta, horren arabera, eskolan edota jantoki zerbitzuan lekua esleitzeko edo ez esleitzeko. Prozedura bera egingo da haurra jada aurrez eskolan dabilenean ere. Kasu horretan, sortutako egoera balioetsiko du Hezkuntza Zerbitzuak, eskolatik baja eman edo eskolan jarraitu ahal izango duen erabakitzeke.

## 10.2.- Txertoak.

Osakidetzaren txertaketa liburuxka ere aurkeztuko dute familiek. Seme-alabak ez txertatzea erabaki duten familien kasuan, Osakidetzako pediatria zerbitzuaren txosten medikoa, eskolara joateko adostasuna jasotzen duena, aurkeztuko dute.

## 10.3.- Gaixotasunak.

Adin goiztiar horietan immunitate sistema heldugabea da, eta, beraz, helduagoak direnean baino errazago gaixotzen dira. Gaixo daudenean, modu berezian zaindu behar dira, eta baldintza bereziak behar dituzte; eta eskolak ezin dizkie eskaini horiek. Bestalde, gaixoaldian eskolara joateak sendatzea atzeratu egin dezake.

Horregatik, garrantzi handia du haurra gaixorik dagoenean eskolara ez joateak, bera zaintzeko eta inguruan dituenak kutsatzeko arriskua murrizteko prebentzio neurri gisa. Gaixotasun biriko edo bakteriano batekin bateragarriak diren sintomak daudenean, familiak Osakidetzara jo behar du, osasun langileek diagnostikoa egin dezaten eta eskolara joatea komeni den ala ez erabaki dezaten.

Ez dago onartuta haurrak eskolara joatea, honako kasu hauetan:

- Sukarra (37,5º baino gehiago).
- Beherakoa duenean.
- Higiene falta nabari denean.
- Larruazaleko erupzioak dituenen, familiak ez dela kutsagarria jasotzen duen Osakidetzako pediatria zerbitzuaren txostena aurkezten duenean salbu.
- Konjuntibitisa.





- Hesteetako parasitismoa duenean (zizareak...).
- Gorako etengabea duenean.
- Eztul iraunkorra edo jariatze mukopurulentua duenean sudurretik, tratamendurik gabe.
- Zorriak ditueanean, tratamenduarekin intsektua eta bartzak erabat desagertu arte.

Hauek dira gaixotasunagatik haur eskolara joango ez diren aldiak:

- Eskarlatina: 24 ordu, antibiotikoen tratamendua hasi ondorenetik hasita.
- Hazizurriak: 5 egun, hantura agertzen denetik hasita.
- A hepatitis: astebete, sintomak hasten direnetik hasita.
- Errubeola: 6 egun, exantema hasten den unetik hasita.
- Kukurruku eztula: 5 egun, medikazioa hartzen hasten denetik hasita.
- Barizela: 5 egun, besikulak hasten direnetik edo lehortzen direnetik hasita.
- Elgorria: 4 egun, exantema (orbanak) agertzen direnetik hasita.
- Gripea eta katarroa: erabat sendatu arte.
- Tuberkulosia: kutsagarria ez dela adierazten duen baimena beharko du eskolara itzultzeko.
- Hazteria: tratamendua hasi eta 12 ordura, kutsagarria izateari uzten dio. Normalean gauez hasten da tratamendua, ohera joan aurretik, hurrengo egunean eskolara joan ahal izateko.
- Inpetigoa: lesioak lehortu arte, edo antibiotikoa hartzen duen unetik hasita 48 ordu pasatu arte.

Egoera horietan edo antzeko beste batzuetan, haurra ezin izango da joan eskolara. Eskolako zuzendariak, prebentzio neurri gisa, sarrera debeka diezaioke eskolan, familiak Osakidetzako Pediatria Zerbitzuaren txosten bat aurkezten duenean eta txosten horretan haurra tratamendua jasotzen ari dela eta eskola joan daitekeela edota duen gaixotasuna edo egoera ez dela kutsagarria ageri denean salbu.

Araudi honetan zehaztu ez diren gaixotasunak agertzen badira, eskolako zuzendariak erabakiko du, dagokion osasun erakunde edo zerbitzuaren orientabideari jarraituz (Osasun Publikoko Udal Zerbitzua, Osakidetza, etab.), haurra eskolara joan daitekeen edo ez, edo zer epe egingo duen eskolatik kanpo.





#### 10.4.- Medikazioa.

Kutsagarria ez den gaixotasun kroniko bat duelako, haur batek tratamendu medikoa behar duenean, eta jarraibideak betetzeko 8 ordutik beherako epeak ezartzen direnean, hezitzaileei errezeta entregatuko die familiak, eta, errezeta horretan, dosiak eta sendagaiak hartzeko ordutegiak zehaztu beharko ditu pediatria zerbitzuak. Medikazioa 8 orduan behin edo tarte handiagoekin eman behar bada, familia arduratuko da haur eskolan sartu aurretik edo irten ondoren sendagaia emateaz.

Osakidetzak ezarritako medikazio jarraibideak soilik hartuko dira kontuan. Beraz, ez dira onartuko medikazio alternatiboaren esparruko jarraibideak, ez baditu dagokion pediatriak berretsi.

### 11. Gerta daitezkeen haurren babesgabetasun egoeren detekzio goiztiarra eta jarraipena.

Otsailaren 15eko 2/2024 Legearen, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoaren, 17. artikulua kontuan hartuta, haur eskoletako hezitzaileek eskolan matrikulatutako haur bat babes-gabezia egoeran egoteko arriskuan dagoela edo egon daitekeela hautematen dutenean, behar duen arreta osoa jarri behar dio egoera horri, eta gizarte zerbitzuei edo eskumena duten agintariei jakinarazi behar die. Jakinarazpena egiten bada, horren berri emango zaio familiari haur eskolan.

2017ko irailaren 11n (2026ko martxoaren 12an eguneratuta), Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Hezkuntza Zerbitzuen arteko Lankidetzaren eta Koordinazioko Protokoloan ezarritako neurri gisa, zailtasun sozialeko egoeran, zaurgarritasun sozio-ekonomikoko egoeran eta/edo babesgabetasun arriskuan edo egoeran dauden 0 eta 3 urte bitarteko haurrak hezteko eta haur horiei arreta eskaintzeko xedez, 20 leku gordeko dira ikasturte bakoitzean 0 eta 3 urte bitartekoentzat Udal Haur Eskoletan, sarrera zuzena dutenak eta, dagokien kasuetan, kuotarik gabe, Udalaren Gizarte Zerbitzuek aurretiaz egindako proposamen arrazoituari jarraituz. Kopuru hori 21 izan daiteke bikien kasuan edo, hala badagokio, hirukien kasuan, baldin eta ikasle horien eskolatzeko plaza bat gehiago behar bada.





## 12. Gerta daitezkeen hezkuntza laguntzako berariazko premien detekzio goiztiarra eta jarraipena.

Haurren garapena prozesu dinamikoa eta oso konplexua da. Izan ere, elkarreraginean aritzen dira askotariko faktore biologikoak edota psikosozialak.

Lehen urteetan, funtzio garrantzitsuak pixkanaka bereganatzea da ezaugarri nagusia. Bilakaera hori hertsiki lotuta dago umetoki barneko bizitzan hasitako sistema nerbio-soaren heltze prozesuarekin, bai eta antolaketa emozional eta mentalarekin ere, eta egitura genetiko egoki bat izatea eskatzen du, eta pertsonaren oinarrizko premiak asetzea, maila biologikoan, psikoafektiboan eta psikosozialean.

Elementu horietan gertatzen den edozein gorabeherak arrisku bat darama eta, are, nahasmenduak sor ditzake garapenean. Udal Haur Eskoletako hezitzaileen eguneroko zereginetako bat izango da haurren garapenean nahasmenduren bat adieraz dezaketen alerta zeinuen detekzioa.

Illo horretan, eskolek "Vitoria-Gasteizko Udal Haur Eskolen Sarean matrikulatutako hezkuntza premia espezifikokoak dituzten haurrak detektatzeko eta haiei hezkuntza arreta emateko jarduera prozedura" dute, hezkuntzarako eta aukera berdintasunerako eskubidea ahalik eta txikitatik bermatzeko egindako lan dokumentua.

## 13. Irudi eskubideen babesa.

Udal Haur Eskoletan matrikulatutako haurrak eta haien familien irudi eskubideak eta zuzendaritzako langileenak, hezitzaileenak eta sukaldeko eta zerbitzuetako langileenak babesteko asmoz, ezin izango dira argazkiak eta bideo grabazioak egin, xede horretarako berariazko baimena ematen denean salbu, bai Udal Hezkuntza Zerbitzuko Lehen Haurtzarorako Hezkuntza Ataleko arduradunarena, baita, haurren kasuan, familien idatzizko baimena ere.

Era berean, ezin izango da egin, Udal Haur Eskoletako instalazioen eta horien ekipamenduen argazkirik eta bideo grabaziorik. Familiek eta eskolatik kanpoko pertsonak hala egin nahi badute edo egin behar badute, baimena eskatu beharko diote Hezkuntza Zerbitzuko Lehen Haurtzarorako





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Hezkuntza Ataleko arduradunari, eta adierazi beharko dute zein izango den horien erabilera. Neurri horretatik salbuetsita daude Hezkuntza Zerbitzua eta esku hartzen duten Udalaren beste zerbitzu batzuk (hala nola Mantentze Zerbitzua eta hark kontratatutako enpresak, hala dagokienean); dena den, argazki eta bideo horiek zuzenean beren lanarekin lotuta dauden xedeetarako erabiliko dituzte.

Ikasketekin lotutako praktikak egiten ari diren pertsonen kasuan eta antzeko egoeretan, edota proiektuak edo ikerketak egiten dituztenen kasuan, berariazko baimena beharko dute pertsonen nahiz instalazio eta ekipamenduen argazkiak eta bideo grabazioak egiteko. Xede horretarako, Hezkuntza Zerbitzuko Lehen Haurtzarorako Hezkuntza Atalaren arduradunak emandako baimena beharko dute.

Hezkuntza Zerbitzuko Lehen Haurtzarorako Hezkuntza Ataleko arduradunari zuzendu beharreko baimen eskariak Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio kaleko 10. zenbakian dagoen Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, Udalaren egoitza elektronikoaren bidez edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan aurkeztuko dira.



**Vitoria-Gasteiz**  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora

